

Ipar Irlandako Gobernuak izango duen egitura eztabaidatzen hasi da Asanblea

Gobernuak martxoaren 10ean jaso behar ditu eskumenak Londresen eskutik

Agentziak / Belfast

Ipar Irlandako Asanblea eztabaidan hasi da Gobernu autonomoak izan behar duen egituraz. Bake prozesua une zailean dago, unionistak eta errepublikanoak bat ez datozelako talde armatuen desarmearen auzian. Baina, ustekaberik ezean, Gobernu berria martxoaren 10ean jarriko da abian.

GOBERNU berriak martxoaren 10ean jasoko ditu eskumenak Londresko Gobernuaren eskutik, Mo Mowlam Ipar Irlandako ministro britainiarak iragarritakoaren arabera. Jakina da hamar ministro izango dituela, baina zein egitura izango duen zehazteko dago.

Ipar Irlandako Asanblea atzo hasi zen hori eztabaidatzen, eta aste osoan aztertuko du David Trimble Ipar Irlandako lehen ministro eta UUP Ulsterko Alderdi Unionistako buruzagiak, eta Seamus Mallon lehen ministrorde eta SDLP Alderdi Sozialdemokrata eta Laboristako kideak landu duten agiria.

Gobernuaren osaketa ikamika ugari sortzen ari da Ipar Irlandan, eta bake prozesua bera ere etenaldira eraman du. Izan ere, Trimblek IRA Irlandar Armada Errepublikanoak armak uztea exijitzen du, Sinn Feinen esku bi ministerio utzi aurretik.

John Taylor UUPko ordezkariak adierazi zuen bake prozesuak aurrera egiteko aukera erdiak dituela, desarmearen auzian unionista eta errepublikanoen artean dau-



PAUL MCERLANE / AP

Ipar Irlandako Asanblearen bilera, irailean.

Garvaghy Roadeko orangisten ibilbidea berriro eztabaidagai

■ TONY BLAIR lehen ministro britainiarra Garvaghy Road Ipar Irlanda hegoaldeko Portadowngo auzo errepublikano bizi-lagunekin elkarriketatu zen atzo. Izan ere, bizilagunak kezkatuta daude Orange Ordena unionistako kideak, joan den uztailetik, protestan ari direlako auzoaren atarian.

Hil horretan Londresko Gobernuak debekatu egin zien orangistei urtero egin ohi duten desfilean Gar-

baghy Road zeharkatzea, istiluak gertatzeko arriskua zegoelako. Uztailaren lehenengo asteburuan egin behar zuten martxa, baina orangistek, amorratuta, bertan behera utzi zuten desfilea, eta, harrezkero, auzoaren atarian kanpatuta daude kide batzuk.

Orangistek makina bat istilu ere sortu dituzte. Bizilagunen hitzetan, orangistek Garvaghy Roadeko hainbat etxebizitzari eraso diote uztailetik.

mearen auzian unionista eta errepublikanoen artean dau-

den ezadostasun handiengatik. Martin McGuinness Sinn Feineko ordezkariaren arabera, Stormonteko Akordioak ez ditu baldintzak biltzen alderdi errepublikanoa Gobernuan esertzeko. McGuinnessen esan du Trimble ahaleginak egiten ari dela Sinn Feinek Gobernuan parte har ez dezan.

Akordioak biltzen du talde armatuek datorren urtearen erdialderako utzi behar dituztela armak, eta desegin behar dutela. Baina gaur arte LVF Ulsterko Indar Boluntarioa talde paramilitar loialistak soilik utzi ditu arma batzuk.

Boris Jeltsin beste bizpahiru astez ospitalean

■ Komunistek eta Lujkovek eskatu dute Errusiako presidentearen dimisioa eta hauteskundeak egitea

Agentziak / Mosku

BORIS JELTSIN Errusiako presidenteari ezingo du bere lana bete bizpahiru astez, igandetik Moskuko ospitale zentrallean baitago, ultzera bat odola dariola duela. Presidente aztertu duten sendagileek esan dute Jeltsini ez diotela ebakuntzarik egin beharko, baina tratamendu berezia jaso beharko duela asteotan.

Jeltsinek 68 urte beteko

ditu otsailaren lehen, eta bere osasun egoera orokorra txarra da. 1996an bigarren agintaldi baterako hautatu zutenetik, besteak beste, bihotzeko ebakuntza egin diote, eta bi neumonia jasan ditu. Azken ultzera hori katarroak eta bihotzeko gaixotasunak saihesteko aspirinak sortu diotela dirudi.

Jeltsinen gaixotasunak ez du asko aldatuko Errusiako eguneroko politika, presidenteari ordu gutxi batzuk soilik

egiten baitu lan orain, eta bere ordezkariak aritzen baita. Hala ere, Gennadi Ziuganov alderdi komunistako buruzagiak berriro eskatu du Jeltsinen dimisioa eta lehendakari-ritzarako hauteskundeak egitea. Orainsu arte Jeltsinen aliatu izan den Juri Kujkov Moskuko alkateak berak eskatu dio presidenteari kargua uzteko. «Bere ahultasunak eragin zuzena du ekonomian eta Estatu arazoetan».



MIKHAIL METZEL / AP

Boris Jeltsin, iragan urrian.

ERRUMANIA

■ **Meatzariek Bukaresterako oinezko martxa hasi dute**

JIU haraneko mila meatzari oinez abiatu ziren atzo Petrosanitik Bukarest hiriburura, Gobernuari presio egiteko 30en bat meazulo itxi ez ditzan. Meatzariek traba ugari aurkituko dituzte bideko 300 kilometroetan, Poliziak errepideak harriz eta zementuz itxi baititu. Tren trafikoa ere eten dute. Zentro eskuineko Gobernuaren arabera, ezkerrek eta nazionalistek manipulatu dituzte meatzariak. 1990 eta 1991eko meatzarien protestek bota zuten Petre Roman sozialdemokrataren gobernuaren. X

KATALUNIA

■ **Estevill epailearen aurkako epaiketa hasi da**

ATZO hasi zen Bartzelonako Entzutegian Luis Pascual Estevill epailearen eta CGPJko kide ohiaren aurkako epaiketa. Estevilli leporatzen diote Ogasunari 356 milioi pezetako iruzurra egitea, hainbat urtez bere ondasunak ezkutatu baitzizkion. Fiskalak 20 urteko zigorra eta 380 milioi pezetako zigorra eskatu du Estevillentzat, eta gogorarazi du hura epaile zenean oso gogor jazarri zituela antzeko iruzurrak. Bigarren epaiketa du Estevillek, baina garrantzizkoena iristeko dago. X

BREITANIA

■ **Haragi lantegiak trabatu dituzte txerri hazleek**

DOZENAKA abeltzainek blokeatu egin zituzten atzo Britainia barrualdeko lau haragi lantegi, Lampaul Guimiliau, Brennilis, Saint Evarze eta Ergue Gaberic herrietan. Jeef Trebaol FDSEA sindikatuko presidenteari ziurtatu duenez, eragotzi nahi dute lantegi horietan Britainiakoa edo Frantziakoa ez den txerria erabiltzea. X

FRANTZIA

■ **LCR eta LO bat eginik**

JOAN den asteburuan erabaki zuten ofizialki LCR eta LO alderdi troskistek zerrenda bateratua aurkezteko ekaineko hauteskunde europarretan. LO-LCRren asmoa da ezker askotariko gobernuarekin haserre dauden botoa biltzea. X